

-GO ATZIZKIA ETA IZEN MULTZOKARIAK

Batez ere Iparraldeko euskalkietako den atzizki honek *-a* organikoa izan du garai batean eta oraino ere badu zubereraz. Hala ere, azken garaietan, *-go* forma nagusitu baita, honela onartuko da euskara batuan. Bi adiera nagusi izan ditu tradizioan zehar:

1. ‘Lanbidea, ofizioa’ adierazten du (Hegoaldeko euskalkietan *-tza* atzizkiaz adierazten dena):

“Adam eta Ebaren lehen bi haurrak Kain eta Abel izan ziren. Lehena laborantzari eman zen, bigarrena artzaingoari”. (Zerbitzari)

“Anaia Martiño, aldizka hargingo eta zurgingoaren egiten dakiena, hasia da gure etxola zaharretarik adrilluzko egoitza sendoen egiten”. (*Federaren propagacioneco Urtecaria*)

2. *-tasun* atzizkiaren kide da beste adibide hauetan:

“Egia heiek elgarrekin duten ahaidegoa eta batasuna”. (Laphitz, *Bi Saindu Hescualdunen Bizia*, 46)

“Zure etsaigoa irabazi dut”. (Duvoisin, *Liburu ederra aita Cardaveraz Jesuistac egina, Lapurdico escarara itzulia*, 204)

Azken 20/25 urte hauetan, ordea, beste balio bat eman zaio *-go* atzizkiari batetik, eta pertsonen multzoa edo taldea adierazteko hartu *irakurlego*, *ikaslego*, *irakaslego*, *ikuslego*, *biztanlego* edo *euskaldungo* bezalako izenetan. Tradizioaren arabera, hauetako batzuk ulertezin gertatzen dira, *biztanlego* ezin baita lanbidetzat hartu, eta nekez uler daiteke ‘biztanletasun’ bezala ere. Beste batzuk, aldiz, oso bestelako esanahia lukete, *irakaslego* ‘irakasleen lanbidea’ bailitzateke, edo *euskaldungo* ‘euskalduntasuna’, ondoko adibideetan argi ikusten den bezala:

“Idatzi du nonbait bost axola zaigula non dagokeen orain eta egun euskaldungoaren haberik sendoena”. (Mitxelena: *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 392)

“Balio haundia ematen diote hor pertsularitzari. Hortan agertzen da euskaldungoan duten kartsutasuna”. (Xalbador, *Odolaren Mintzoa*, 53)

Pertsona-multzoa adierazteko, *-eria* atzizkia baliatu izan dugu:

“Zahartzera goazinei darraikigula gazteria”. (Hiriart-Urruty, *Aurpegia, Mintzaira, Gizon!*, 220)

“Dendari arek, aituna zan bere tratuan, eta bezerixa aundixa eukan”. (T. Etxebarria, *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar*)

Beste alde batetik, oso sarri erabiltzen dira gaur *-go* atzizkiaz sorturiko eta pertsona-multzoa adierazten duten izenak: hitzetik hortzera erabiltzen dugu *ikastetxe bateko irakaslegoa* edo *ikaslegoa*; *ikaslegoaren kopuruak gora egin du* esaten da gehienetan, etab. Tradizioan, aldiz, ez da izen multzokari gehiegi azaltzen; plurala erabiltzen da askotan. Hortaz, konponbidea ez da *-go* atzizkia dagoen lekuan besterik gabe *-eria* atzizkia jartzea, gehienetan plurala erabiltzea baino: *herri honetako biztanleak*, *ikastetxe honetako irakasleak*, *irratiko entzuleak*... Eta balio multzokaria behar denean, *-eria* atzizkiaz sortu izenak.

Hau da, beraz, Euskaltzaindiaren erabakia:

1. Euskaraz askotan ez dago izen multzokariaren beharrik, nahikoa da plurala erabiltzea: *ikastetxe honetako irakasle eta ikasleak, herri bateko biztanleak, hizkuntza bateko hiztunak, etab.*
2. Hala ere, izen multzokaria beharrezkoa denean, *-eria* atzizkia erabil bedi: *langileria, gazteria, biztanleria* edo *bezeria*.
3. *-go* atzizkia erabil bedi:
 - ofizioa, lanbidea adierazteko: *artzaingoa, zurgingoa, etab.*
 - tasuna adierazteko: *euskaldungoa, ahaidegoa, etab.*

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1997ko maiatzaren 30ean onartua)